# KORTAK
## Formazio bitxiak

# SELES
## Curiosas formaciones

Duela 5.000 urte inguru, artzaintza agertu zenean, gure eremu menditsuetako biztanleen bizimodua aldatu egin zen erabat. Gure geografiako eguraldia urtaroen arabera aldatzen denez, behar-beharrezkoa izan da artaldeak aldian-aldian batetik bestera eramatea, ganaduak bazka izateko. Urte-sasoiko transhumantziaren ondorioz, aldi baterako kokaguneak agertu ziren, eta, bertan, elikagaiak eta babeslekua aurkitzen zituen ganaduak.



L.M. Zaldua

Hace unos 5000 años, con la aparición del pastoreo, la forma de vida de los habitantes de nuestas zonas montañosas experimentó una considerable transformación. Debido al clima estacional de nuestra geografía, los traslados periódicos de los rebaños han sido necesarios a fin de que el ganado tuviese siempre pasto. Esta trashumancia estacional desencadenó la aparición de asentamientos temporales en los que el ganado encontraba alimento y cobijo.

### Bitxikeriak — Curiosidades

*Bazenekien kortabaso gehienak ur-lasterretatik hurbil daudela? Ganaduak ura behar zuelako zeuden eremu horretan.*

*Kokagune zehatz batean kortabasoak daudenean, bertan artzaintza garatzen zela adierazten digute. Horra hor Ganekogorta mendia. Izenean bertan, argi eta garbi azaltzen da nolako garrantzia zuten:*
*Ganekogorta = Gaineko korta = Gailurreko kortabasoa*

*¿Sabías que la mayoría de los seles se encuentran cercanos a los cursos de agua? Este hecho se ha relacionado con la necesidad de agua para el ganado.*

*La existencia de seles muestra la tradición pastoril de un determinado enclave. Es el caso del macizo de Ganekogorta, donde la importancia queda también reflejada en su nombre:*
*Ganekogorta= Gaineko korta = Sel de la cima*




Iturrizaren esanetan, Bizkaiko kortabasoak biribil-biribil zedarritutako larreak dira, itxita ez badaude ere. Mugarria dute erdian (artamugarri); eta zenbait baztermugarri. Kortabasoak, tamainaren arabera, honelakoak izan daitezke:

Según Iturriza, en Bizkaia los seles son terrenos acotados en círculo perfecto, aunque no cerrados. Poseen un mojón central y una serie de mojones periféricos. Según su tamaño, los seles pueden ser:




**Udako kortabasoa edo txikia.** Ganadua bertara eramaten zuten hilabete beroenetan. Bizkaiko neurriak (erradioa): 63 estatu = 122,8 m

**Sel veraniego o menor**, a donde se llevaba el ganado durante los meses más cálidos. Medidas en Bizkaia (Radio): 63 estados = 122,8m



Sel invernizo de Gongeda-ko neguko kortabasoa

**Neguko kortabasoa edo handia**. Bertan, ganadua babestu eta bazkatzen zen hilabete hotzenetan. Batez ere, bailaretako beheko aldean dago kokatuta, batzuetan udakoarekin bat egiten badu ere. Bizkaiko neurriak (erradioa): 126 estatu = 245,7 m

**Sel invernizo o mayor**, donde el ganado se cobijaba y pastaba en los meses más fríos. Se localizan principalmente en las partes bajas de los valles, aunque podemos ver que en algunos casos coinciden con los veraniegos. Medidas en Bizkaia (Radio): 126 estados = 245,7m



L.M. Zaldua

*Batzuetan, gurutze edo izar antzeko marka agertzen da artamugarrian, baztermugarri edo lekukoak non dauden adierazteko.*

*En algunos casos, suele aparecer sobre el mojón central una marca en forma de cruz o estrella que nos indica la ubicación de los mojones periféricos o testigos.*



Mojón central de Artiba-ko artamugarria

Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco · Bizkaiko Foru Aldundia · Diputación Foral de Bizkaia · Bizkaia · Enkartur · Izartu